

EUSKALDUNEN BIKAIÑTASUNA.¹



Antziñako euskaldun
zintzo ta azkarrek,
arras chautu zituzten
Erromar zatarrak.²

Begira, Aitzondo, ¿ikusten dek arropa-zorroa bizkarrean duela betik gora itoka eta lertzeko zorian datorren gizon ori? Ori gure bazter oyetakoa eztek, nolanai ere arrotza dek, eziñ ibilliz beláunak klisk egiten ziotek, bekokitik beera izerdia chirrian zeriok, eta euskaldunak ezagutzen eztuen nekea bere arpesian argiro agiri zayok. Begira nola arkaitzak ematen duen ur preskoa edanaz, bere egarria itzaltzen duen. Euskalduna egarriaren kontugabe bere bidean aurre-ra joaten dek: ori arrotza dek.

Aitzondok: ¿Erromatarren bat ote diagu suertez ere, Osiñalde? Baña chito iñillik; bertan diagu; itzegitera nijoakiok.

Esadazu, arrotza: ¿nortarra zaitugu zu, gure mugak igaro eta bazter oyetara sartzeko ausardia dezun ori?

Arrotzak: Erromatarra naiz ¡o euskalduna! Zuen lan eta azaña andi arrigarrien otsa Italiaraño eldu zan, eta onelako gizon bular-detsu portitzak ematen dituen zuen lur paregabea ikusteko zalez nator.

Aitzondok: Arrotza, ordu onean atoz: nere emazteak apari-mokadua eta alabak oi churi garbia prestatuko dizkitzue. Baña begira, Osiñalde, gerra-irrintzia belarrietaritzen zadak...

(1) Gaztelaniatik itzulia da.

(2) Leyenda señalada con *mención honorífica* en los Juegos florales euskaros celebrados en San Sebastian en 1886. (Véase página 47.)

Osiñalde: Gu buruz beeratu eta azpian artu nai ginduzkeen Erromatar arroak ala, gure ondasunen eta odolaren egarriz irrikitzen dauden pranzasak ote zetiagu?

Aitzondok: Bearbada Ipar-aldeko samalda odolgiroak izango dituk; baña diranak dirala. Gurutzeak¹ buruz beeratuko dik Irminsul, Gurutzeak azpiratuko dizkik Erromatarren jaungoikotzakoak: Gurutzea gallen irtengo dek fede eta legegabe guziakgandik. ¿Zu ere onetan etzaude, arrotza?

Arrotzak: Nola ere nagoen, euskalduna. Zuen jendeak mundu guzia ikaratuko du. Anibal andiak zuen laguntzarekin Erroma onperatu eta chautu zuen: zuek erromatarrakikoa egiteko, Anibalen alkartasun eta laguntzaren bear etzerate.

Osiñalde: Begira, arrotza, gure seme eta anayen aurrean or mendiaren erpiñean agertzen dan euskaldun orri; gure buru eta agintari nagusia ori da. Adi zazu zer dion, itzegitera dijoata.

—Euskaldun biotzeko lastának, dio Agintari nagusiak, Augustoren izenaz deitzen dan Oktabioren jendea gure muga barruan degu. Oriek beren gorputzak burniz estalita datozkigu, gure armak akatsik egiñ eztegiezaten; ¡beldurti kikildu charrak! Gu, gere bularrak agiri ditugula jarriko gatzazite aurrean: biktori, garaipen eta baza gureak dira, seguru alere ¡o Tubal-en seme portitz bulardetsuak! Gure lege eta usadi on maitagarriak oriek kenduko ez dizkigute. Gurutzeak azpiratuko du jainko palsoen adoratzalle orien lege beltz, itsusi nazkagarria. Iberiako menditarrak laster egingo dute erromatar erkindu oriekikoa. Oriek urrez jantziak daude; gu berriz ardi-narruz estaliak. Gure mendietan burnia baizik ezta. Burniak sendotasuna, indarra, biotz errutsua eta balorea, senestutzen eta aditzera ematen ditu; urreak berriz atsegiñ-kontentuak, apañdura, eta aragiaren gozamina begietarutzen ditu; urreak gizon saldu eta saltzalleak erosten ditu; urreak palsia, bildurra, erkindadea eta saldukeria piztutzen ditu. Laster egingo degu oriekikoa; diran guziak arras chautuko ditugu, eta iges egiten duten ale banakak atzera begira egoteko astigabe joango dira latin-darren bazterretan eta atsegin kontentuen sutegi Erroman beren laido eta desonra lotsagarria estaltzera. Etorriko da Mesias agindua, ilko da, igaroko dira gizaldiak, igaroko da erromatarren erria, Kartagotarrena igaro zan bezela; sortuko dira erri berriak, eta oyek ere igaroko dira; Baña gure erriak sekula guzien azkeneraño iraungo du. ¿Badakuskitzute samaldaka datozen konta al-baño geiago jende oriek? Bada Erroma-

(1) Gauza jakiña da kantauritarrak adoratzen zutela Gurutzea denbora antziñakoenetatik.

ko Enperadorearen jendeak dira. Apurtu eta desegin ditzagun anayak, beren morrontza gogorraren azpian iduki nai gaituzten arrotz oriek; gure mugapean sartzeko ausardia izan duten samalda gorrotagarri oriek. Biotz on eta alimo, indarra eta anaitasuna, euskaldunak, eta emen garbituko degu gu oñperatu nai gindukean erromatarren jendea.

Eta garai onetan erromatarra an ikusi eta buruzagiak diotsa:

¿Zer darabiltzu gure mendi oyetan, arrotza?

Erromatarrak belaur biaz lurra jo, eta eranzuten dio:

Kantauriako agintari nagusia: beron lan andi eta azaña miragarrien otsa Erromaraño irichi da, eta oriez arritu eta chunditu, eta biotza samurtuta, Galia-tarrak Irminsulen aldarera alderatzen diranean bezain begiramentu eta itzal andiaz nator berok ikustera.

Ondo, Erromatarra, gure egitekoa arrotzai arrera ona egitea da; zuk zerea egizu, Oktabioren soldadu-samaldai laguntzera joanaz, edo ta gure mendietan gure artean gera zaite, eta gure anaitzat idukiko zaitugu.

Poz atsegiñ andiaz berokin geratzen naiz. Lurraren gañean bizi naizen egunetan kantatuko ditut beron laudario eta alabanzak, eta eskatuko diet jainkoai, beron suerte on eta dicha.

¡Euskaldúnak! dio ostera buru nagusiak, ara or, nola etsaya aurrera eta aurrera datorren; ara nola Oktabio zurrupatzalle gogorraren soldadu-samaldak guganonz datozen. Bai, zurrupatzalle gogorrarenak, alabaña beste gizon guziaz eragiña edo guzien andiena dalakoan dauka bere burua, gizon guziok anayak geraldari. ¿Egia ezta, nere euskaldúnak, gure lege ederren mami, oñ eta zimendua alkarri diogun ongina eta amorio itsua dala?

Mendiai ikara eragiñaz, buruzagi azkar bulardetsuaren biotza poz-atsegiñez bete zuen, bai otsgarri eta turmoi antzeko guziak batera bota zuten batek.

Eta bizkitartean tiranoaren jendeak aurrera datoz, eta mendia-
ren oñera irichi dira.

—¡Kantauriatárrak! oju egiten du erromaraño agintari nagusiak. Oktabio Augusto andiaren izenean erregutzen dizuet, isill-isillik, eta iñolako apukogabe nere eskuetara eman eta jarri zaitez telerromatarren lagun, soldadu eta gerrari.

—Sekulan ere, eranzuten dio euskaldunen agintari nagusiak; sekulan ere adituko etzaitugu. Baizik eta irten zaite ariñ eta laster guk gere gere degun, eta beste iñork onekiñ ikustekorik ez tuen lur onetatik, eta tirano ari esan zayozu, gu erromatar galgiroti eta atsegin kontentu zaleak ezkerala, ezpada menditar urriti eta gere pobrezan naierara bizi geranak.

Erromatárrak: Ez egon, euskaldúnak, zuek Augustoren eskupean borchaz ipiñi gabe emendik joango geralakoan. Erromatárrak, aurrera, eta ¡bizi bedi Oktabio!

—¡Euskaldúnak! aurrera eta ill bitez Erromatárrak.

Eta euskaldúnak ujolaren gisa mendiak beera burkaiztu, eta bazter guzietan ondamena, autsiabartza eta eriotza ereñaz, aurrera eta aurrera dijoaz.

Eta gerrako beren irrintzi bildurgarriak erromatarrak gortu eta mendiai dar-dar eragiten diezate.

Kiski-kaska alkar jotzen duten armen zalaparta gogorak, erromatarren deadar bildurgarriak, euskaldunak mendiak beera amiltzen dituzten arkaitzen ots izugarriak, itsaso aserretuaren orroa edo turmoyaren otsa ziruditen.

Baña ¡o lotsagarria! erromatarrak eriozko izu-laborriak artu, eta ematen zayozka igesari.

Eta euskaldúnak beren saspill edo presa uztetik urruti, aitzak eta munoak, erreka zulo eta sasiak ariñ eta azkar igaroaz, an dijoaz-kite ondoren....

Sayeta, chimista, eremuko aizea ez añ ariñ eta azkar, nola euskaldúnak erpoz-erpo zijoazkien.

Eria bezaiñ izugarriak, beren mendietako burnia bezaiñ gogorak, estaltzen dituzte bazter guziak. gizon illez....

Eta erromatarrak beren zanko astunak nai baño nekezago mugituz itoka eta itsumustuan korri ta korri...

Iges dijoaz, azeria bere zulora bezela, unchi edo koneju izutia bere gordelekura bezela.

Euskaldunen atzaparretatik iges egiñ al-izan zuten zenbait banaka an dijoaz beren autsiabartza tristea Oktabiori kontatzera. Onen aurrera ziranean, erromatar batek diotsa onela:

«Enperadore andia: berorrek Kantauriatar gogor ezigaitzak oñperatzera bialdu ditu bere gerrariak; baño jaungoikoak aztu gaituzte, euskaldunak chautu eta desegiñ gaituzte.

¡Izugarria izan da jatzarra, jauna! ¡bildurgarria azken ondamen eta autsiabartza! ¡O! ¡euskaldúnak eziñ utseman lezakeenak dira, jaungoikoen itza bezela! ¡Beren kolpe bakoitzak illotz uzten du gizona!

¡Izugarria da euskalduna! ¡Prestua eta izugarria!...

¡Ujolaren gisa mendiak beera burkaiztu, eta beren bidean ezer errespetatzen ez dute. Jupiter-ek alako oñaztar eta chimistarik sekulan bota eztu. Añ laster ikusten dira mendiaren erpiñean, nola erreka zuloetan; baño beti izulaborria, eriotza eta ondamena aurrean eramanez.

¡O Enperadore andia! Berorrek, erreinu añ zabal eta portitzak azpiratu dituen orrek, jende au sekulan azpiratuko eztu.

Arren ez beza bialdu jende berririk, alperrik izango zayota.

Oktabio Augustori lotsak gorritzen diozka bere matrallak.

¡Andia da, nolana ere, erri ori! deadar egiten du, baña zuk gauzak geituaz itzegiten didazu. Guziaz ere, sayatuko naiz azkeneko bidea artzera, eta jaungoikoak lagun dizadatela.

Mandatariák, euskaldunen aurrero joan, eta oyei esan zien:

«Zuek, mendi oyek dirala bide eta bazter oyetako berri ongi dakizutelako, alde oetan azpiratzen gaituzute; baña ¿benturatuko ziñateke lur zelai edo ordekan gurekin eskuetaratzera?,

¡O biotz andiko euskaldun bulardetsu portitzak! ¿esan ziñidazuke niri, zér eranzun diozuten Augustoren aipamenari?

—Bai, esan geñegizuke. Ara emen zer, gere buru nagusiaren aoz eranzun diogun:

«Erromatarra, zere Enperadoreari esan zayozu, prest arkitzen gerala naiz mendietan, naiz ordeketan, naiz gure lurreen eta naiz zuenean zuekiñ eskuetaratzeko. Zuen Enperadoreak atera bitza bere erreinu zabaletako irureun gizon bikañenak, bere naierara armatuta; guk bialduko ditugu noranai beste irureun euskaldun. Guk aterratzen badegu baza, utzi dizagula pakean Oktabiok; eta zuek azpiratzen bagaituzute, ordu onean izan bedi gure Enperadore, jaun eta jabe, eta gu bere agindupeko izango gera.»

.

Irureun euskaldun alkarren leyan esleituak, koche bearrikgabe, oñez Erromara joan, eta irureun Erromatar bulardetsuenakin arpegiz-arpegi eta alkarri erasotzeko, Augustok señalea egin zai zeuden.

¡O eta zenbat erromatar jatzarra ikustera joan ziran! ¡Oyetako zenbatek euskaldunen arpegi prestu eta nobleak ikusi ta, oyei garraipen edo biktoria opa diezaten!

Erromatarrak laborriak artuta, biotzak tupaka dauzkate: euskaldunak berriz, ayekikoa egingo dutelako uste eta konfianza osoan, sosegu andian, eta arpegi alayakin daude...

Geroenean ematen du Enperadoreak alkarri erasotzeko señalea.

Eraso zioten unean atera zuten zalaparta gogorak dar-dar eragiten dio Erromari, eta erri guzia iraultzera dijoala dirudi.

Beren andiusteak indartzenditu erromatarrak; baña euskaldun ikaragarriák arralotzen ditu bere gizon-errenkadak.

¡Lzugarria da pelia! ¡bildurgarria autsiabartza!

Amorru bizizko madarikazio, birau eta ai tristeak darizte iltzen

dauden erromatarrai; eta poz atsegiñezko santsoak¹ euskaldun portitz paregabeai.

Gero ere begira zegoen jendearen eresi eta kezka bere azkena etorri zitzaion.

Kantauria-tarrak kukurruru jo dute. Oyek Augustoganon izuli, eta beren begi zabal ederraz oni begiratzen diote.

Begira daudenak zoratzeko zorian guziak batera ojukari eman, eta euskaldunak goratzez eta laudatzez eziñ aspertu dira.


Baña isiltzen dira, Oktabio itzegitera dijoata.

—Euskaldúnak, dio, milla bider zori onekoa onelako gizonak adorutzen duten Jaungoikoa; milla bider patu onekoa onelako gerra-riak leuzkakean Enperadorea. Zuek guziok odol garbikoak, guziok prestuak, guziok jaunak zerate zuen lurrean. ¿Egia ezta, erromatárrak?

Begira zegoen jendea asten da ostera ojuka euskaldúnak goratzen, muñegiten diezate oyen soñekoai, adorutzen dituzte...

Belaunikatzen dira emakumeak oyen aurrean, agertzen diezate beren itsumen eta amorioa, muñegiten diezate oyen oñai, eta gorputz guziko ikara senti dute oyei ikutzean.

FRANZISKA IGNAZIA ARRÚE-KOAK.



(1) Deadarrak.